

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Galeseko poliziak drogak legeztatzea eskatu du

Oraingoan polizia batek proposatu du drogen kontrako estrategia azpikoz gain aldatzea, Britainia Handiko Galesen. Lehendik aditu askok eskatua dute debekuaeren bidea baztertu eta droga guztiak lege barruan sartzea, eta hori derrigor egin beharko dela gero eta gehiagok dakusate.

RICHARD BRUNSTROM POLIZIA ez dago erretretan eta datu honek balio handiagoa ematen dio esan duenari: droga guztiak legeztatu daitezela. Britainia Handiko gobernuak drogen inguruan prestatzen ari den ondorengo 10 urteetarako plana egiterakoan, beste aditu askori bezala eskatu diote iritzia Galesko iparraldean poliziburuak den Brunstromi, eta honek 30 orritan gordin adierazitakoak herritarrei jakinarazi dizkie *The Independent* egunkariak. *The Independent* ez da txorakeriatan ibiltzen droga kontuekin, eta hala, berrikitan kanabisarekin dagoen permisibitate moztea eskatu zuen, duela aste batzuetako Net Hurbilen agertu genuenez.

Oso aipamen gutxi egin zaizkio Richard Brunstromek esane gure artean. Aldiz, bai proposamenak eta bai gizonak merezi lukete Euskal Herrian ezagutzea.

Brunstrom ez da oharkabea pasatuko den polizia. Interneteko bilatzaile batean haren izena jarriz gero, dokumentazio sarria aurki daiteke. Britainia Handi osoan da ezaguna, hasteko, bere agintepeko herrietan autoen eta batez ere motorren abiadura kontrolatzeko darabilen politika gogorra: erradarrak, kamerak, isun galantak, publizitate kanpaina probokatzaileak.

Galesen, bestalde, ezaguna dute bertako kulturarekiko gizon honek daukan atxikimendua. Berrikitan,

Galesko parlamentuan hizkuntza normalizazioaz eztabaida batean hartu zuen parte. Bere mintzaldia galeseraz hasi ondoren, poliziburuak aitortu zuen Ingalaterratik Galesera lanera etorritakoan bertako hizkuntza ikastearekin jabetu zela hau herrialde bat zela, ez Ingalaterrako eskualde bat, eta aldi berean agintariei eskatu zien zorrotzago egiteko lana hizkuntzaren eskubideak zaintzeko. YouTubeen ikus daiteke galeseraz hitz egiten bilkura batean. Arazo sozialetaz pentsatzen duena blok batean erakusten du Brunstromek.

Baina ez da polizia oztana. Bere konderrian ere poliziak hasi dira erabiltzen "Taser" izeneko pistolak, metro batzuetatik eta harien bitartez agenteek harrapatu nahi dutenari segundo batzuetako elektroshocka eragiten diotenak. "Taser" hau giza eskubideen aldeko erakunde batzuek salatua dute, eta kaleko manifestazioetan harrapatutako militante bat baino gehiagok nozitu du urteotan.

Honetan ere, ordea, Brunstrom poliziburuaren originala da: publikoki erakutsi du nola funtzionatzen duen "Taser" elektrikoak, eta kameraren aurrean onartu du bere larruan probatzea. YouTubeko bideo batean ikus daiteke Ipar Galesko *constablea* (komandantea) bi poliziak alde banatatik helduta daukatela astindu elektrikoa jaso eta oihuka lurrera eror-

Lerrootan, *The Independent* egunkariaren urriaren 7ko azala. Tituluek diote: "Droga guztiak legeztatu.

Poliziburuak eskatzen du lege 'inmoralak' kentzea". Argazkian ageri den polizia da Richard Brunstrom Ipar Galeseko *constablea*. Irudia kanpaina baten aurkezpenean dago hartua. Trafiko istripuen kontra daraman kanpaina errukigabeak egin du famatu Britainia Handi osoan, baina Galesen asko aipatu da Brunstromek bertako kulturarekiko duen atxikimendua. Ingelesa izanik, galesera ikasi du, galeseraren aldeko ekitaldietan hartzen du parte eta bertako politikariei eskatu die hizkuntza politikan zorrotzago jokatzeko, Galesen autonomia daukanetik hizkuntza normalizatzen gutxitxo egin delakoan.



tzen. Hori bai, bideoaren bukaeran herritarrei *constableak* esango dio pistola elektriko hau mingarria dela, eta hobe duela poliziek samurki eskatu diotena bete eta obeditzea.

Javier Balza sailburuari joko emango lioke Richard Brunstromek, noizbait Eusko Jaurlaritzak erantzainetxeak bisitatzea ekar balez.

Etikan oinarritu, ez dogman

Richard Brunstromek idatzitako txostenean dio narkotikoak legez kanpo uzteak porrot egin duela. Gobernuari eskatzen dio drogaren kontrako borroka bukatutzat eman eta droga guztiak legeztatu ditzala, kokaina eta heroina barne.

Ondorio horietaraino faktore askok eraman dute Brunstrom. Hasteko, polizia beste edonor baino hobeki ohartzen da sekula baino droga gehiago eta merkeago aurki daitekeela. Erabiltzaileak asko ugartu dira eta drogagatiko delituak ere bai. Gainera, narkotrafikoa omen da petrolioaren ondoren munduko jarduerarik dirutsuena.

"Drogen inguruko politikak –idatzi du Brunstromek– pragmatikoa izan behar du eta ez moralistikoa, etikak gidatua eta ez dogmak; horregatik baztertu behar dugu oraingo debeku eskema, ez delako ez eraginkorra eta ez morala. Ebidentzian oinarritutako sistema bateratua izan behar da abia-



puntu, tabakoa eta alkohola sartu eskeman, eta helburu ipini gizartearentzako kalteak minimizatzea”.

Britainia Handian drogen kontrako borroka 1971ko lege batek gidatzen du. Haren arabera, drogak A, B eta C motatan sailkatzen dira. Brunstromek txostenean argudiatzen du abiapuntuan bertan dagoela akatsa, ABC arrisku taula hori erreal ez delako. Eskozian medikuek egindako ikerketak erakutsi du 2004.ean tabakoagatik 13.000 pertsona hil zirela, alkoholagatik 2.052 eta aldiz droga ilegaleagatik 356. Droga edukitzeagatik zigorrak ez doaz estatistika horien arabera, noski.

Ilegalizazioaren porrota beste aditu askok ere salatua dute, eta Brunstromek aipatu ditu batzuk informean: Londresko Parlamentuko

Zientzia eta Teknologia batzordea, Olinpiadetarako ministroa, presondegien ikuskatzaile nagusi izandako Lord Ramsbotham, Auzitegi Goreneko epaile erretiratu bat, eta abar.

Ingalaterra eta Galesi A motako droga arriskutsuak kostatzen zaizkie urtean 17.000 milioi libera esterlina –horietatik %90 delituen ondorioz– eta hori gainera alde batera utzirik gizartean dauzkaten bestelako kalteak. Prohibizionismoak justizi sistema krisian murgildu du. Eta gainera, nazioarteko harremanetan ere eragina dauka, droga ekoizten duten herrialdeak desestabilizatu eta haie-tan giza eskubideak urratzea sustatzen duelako.

Zer lortuko litzateke droga guztiak legezko bihurtuz gero? “Drogengati-

ko kriminalitatea arras gutxituko litzateke –idatzi du Brunstromek– eta horrela pertsegizioan xahutzen diren diruak erabili ahal izango lirateke kalteak gutxitu eta erabilgarritasuna demostratu duten bergizarteratze tratamenduak sustatzen”.

Ideiak berdin defendatzen ditu espetxeetako ikuskatzaile nagusi izan zen Lord Ramsbotham-ek. Honek deklaratu dio *The Independent* egunkariari: “Gaurko sistemak alde guztietatik frakasatu du. Begiratu iezaiozu Amerikako Estatu Batuetan alkoholari egin ziztaion debekuari, eta huts egin zuen berdin. Ipar Galeseko poliziburuak esan duena seriotan hartu behar da. Gizartean hainbesteko desgraziak eragiten dituzten trafikanteak geldiarazi behar ditugu”.

Ramsbothamek aitortu du presondegietan ondo zekitela bertara zekartzaten hamarretik zortzi droga erostarekin zerikusia duten delituengatik zekartzatela. Ipar Galeseko poliziaren buruzagitzan dagoen John Anderson ere Brunstromekin dago, debekua aldeko politikoen erreakzioak ikusita: “Politikoez erreflexuz erreakzionatu dute, ez dute errealitatea hartu nahi beren gain. Gai honek ez baitu botorik ematen”.

Plaid Cymru alderdiko Leanne Wood parlamentariak defendatu du Brunstrom poliziburuak: “Ikusita daukagu nola berziklatzen duen jendea sistema honek. Espetxera eramanez, espetxetik atera, drogetan sartu berriz, legea urratu, berritortu kartzelara... Hau aldatu beharra dago”. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 4 - 20064 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL: 943 420 624

G A R A N T I A